
4.15. AMORRUA

GAIXOTASUNAREN EZAUGARRIAK

Amorrua entzefalomiyelitis biriko akutua da, ia beti hilgarria. Koadroaren aurretik larritasun sentrazioa, zefalea, sukarra, ondoez orokorra eta nahasmendu sentsozial mugagabeak izaten dira, askotan animaliak eragindako lesioaren lekuarekin zerikusia dutenak; batzuetan parestesia izaten da sintoma prodromiko bakarra. Paresia edo paralisia agertu arte eboluzionatzen du gaixotasunak, irenketaren muskuluen espasmoarekin, eta horrek urari beldurra eragiten dio (hidrofobia); ondoren, eldarnioa eta konbultsioak agertzen dira. Medikuen esku-hartzerik gabe, koadroak 2-6 egun edo pixka bat gehiago irauten du. Normalean, arnas paralisiaren ondorioz gertatzen da heriotza.

AGENTE ERAGILEA

Rhabdoviridae familiako RNA birus batek sortzen du, Lyssavirus generokoak. Birus klasikoak eta txerto-birusek osatzen duten 1. genotipoaz gain, badira beste sei Lyssavirus genotipo, ugaztunei eragiten dietenak: Europako saguzarren 1. birusa (EBL1), Europako saguzarren 2. birusa (EBL2), Duvenhage birusa, Mokola birusa, Laosko saguzarren birusa eta Australiako saguzarren birusa.

TRANSMISIO MODUA

Odol beroko animalia guztiak izan daitezke gaixotasunaren gordailu. Gaixo dagoen animalia listua da infekzio-eramailea. Birusa ez da sartzen osorik dagoen larruzalean, eta, beraz, zauri edo urraduraren bat behar da sartzeko.

Listua mukosekin kontaktuan egotea ere eraginkorra da transmisiorako. Pertsona batetik beste baterako transmisioa posible da hipotetikoki, baina transplanteetan bakarrik deskribatu da.

Giza amorru kasu gehienak txakurren hozkaren ondoriozkoak dira. Espainian (penintsula eta uharteak) ez dago amorrurik lehorreko animalia basatietan 1978tik, baina egiaztatu da saguzarren Lyssavirus europarra (EBLV-1) dabilela Espainiako espezie desberdinetako kiropteroen artean.

Kutsagarritasun-aldia txakur-espeziean bakarrik ezagutzen da argi eta garbi; birusa listuan agertzen da sintoma klinikoak agertu baino hiru eta bost egun lehenago eta gaixotasunak irauten duen bitartean. Gainerako ugaztunetan ez da zehatz-mehatz ezagutzen infekzio-aldia. Kiropteroetan, itxuraz osasuntsuak diren animalietan asteetan zehar birusak nola barreiatzen diren deskribatu da.

INKUBAZIO-ALDIA

Giza amorraren kasuan, inkubazio-aldia, oro har, bi eta zortzi aste artekoa izaten da, baina oso aldakorra izan daiteke (hamar egunetik zenbait urtera), injektatutako birusaren dosiaren, zauriaren motaren eta lekuaren arabera (laburragoa zauria nerbio-sistema zentraletik gertu badago).

TXERTOEN EZAUGARRIAK

Gaur egun munduan erabilgarri dauden txertoak kultibo zelularretan prestatutakoak dira (CCV, Cell culture vaccines). Txerto kaltegabeak eta ondo onartuak dira. Elkarrekin bateragarriak diren txertoak dira, eta, beraz, txerto batekin hasitako jarraibide bat beste txerto batekin osa daiteke.

TXERTO ERABILGARRIAK

ANTÍGENOA	IZEN KOMETZIALA	LABORATEGIA
Amorru birusa	RABIPUR®	Bavarian Nordic

JARTZEKO MODUA

Muskulu barnean (MB)

GORPUTZEKO ATALA

Deltoide muskulua edo haur txikietan (<2 urte), izterraren alboko aldea.

TXERTAKETA-JARRAIBIDEA

TXERTO MOTA		JARRAIBIDEA*
ESPOSIZIO AURRETIK	Immunogaiak	Bi dosi: 0 eta 7. egunean
	Immunokonprometituak	Hiru dosi: 0, 7. eta 21etik 28ra bitartean
ESPOSIZIOAREN ONDOREN** Aurrez txertatu gabeak	Immunogaiak	Lau dosi: 0, 3., 7. eta 14tik 28ra bitartean Honek ere balio du: 0 egunean bi dosi eta beste bi dosiak 7.egunean eta 21etik 28ra bitartean
	Immunokonprometituak	Bost dosi: 0, 3., 7., 14. eta 28. egunean
ESPOSIZIOAREN ONDOREN** Aurrez txertatuak	Immunogaiak	Bi dosi: 0 eta 3. egunean
	Immunokonprometituak	Lau dosi: 0, 3., 7. egunean eta 21etik 28ra bitartean

* Jarraibidea emateko lehen eguna 0 eguna da, eta gainerakoak 0tik aurrerakoak izango dira.

** Esposizioaren osteko jarduketan txertaketaz gain, amorraren aurkako immunoglobulina ematen da 0 egunean (amorraren protokoloa).

KONTSERBAZIOA

2-8 °C bitartean. Ez dira izoztu behar. Argitik babestuta gorde

INDIKAZIOAK

Esposizio aurreko profilaxi gisa: herrialde endemikoetara bidaiatzen duten pertsonak, saguzarrekin ohiko harremana duten pertsonak, amorruren birusa manipulatzeko duten langileak edo saguzarrekin kontaktua dutenak.

Esposizioaren osteko profilaxi gisa: amorrua izateko arriskua duen animalia batekin kontaktuan egon diren pertsonak (Espainiako lurraldea amorrutik libre dago saguzarretan izan ezik) edo herrialde endemiko batetik etorritakoak

Amorru-protokoloa kontsultatu <https://www.euskadi.eus/informacion/protocolos/web01-a2gaixo/eu/>

KONTRAINDIKAZIOAK

Txerto guztien kontraindikazioak eta prekauzio orokorrak.

BESTE FARMAKO BATZUEKIKO ELKARRERAGINAK

Bat ere ez

ONDORIO KALTEGARRIAK

Lokalak injekzio-puntuan, zefalean, zorabioan, erupzioan, nekean, sukarrean.

BIBLIOGRAFIA

1. Protocolo de Vigilancia de Rabia. Departamento de Salud. Gobierno Vasco. 5 de marzo de 2018.
2. Vacunación frente a rabia y evaluación de respuesta inmune en humanos. Aprobado por la Comisión de Salud Pública en la reunión mantenida el 17 de junio de 2022. Disponible en <https://www.sanidad.gob.es/areas/promocionPrevencion/vacunaciones/comoTrabajamos/documentos-tecnicos.htm>
3. Centro Nacional de Epidemiología. Instituto de Salud Carlos III. Red Nacional de Vigilancia Epidemiológica. Protocolos de la Red Nacional de Vigilancia Epidemiológica. Madrid, 2013.
4. ORDEN de 30 de septiembre de 2022, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se regula la vacunación antirrábica obligatoria de la especie canina en la Comunidad Autónoma de Euskadi.
5. Morbidity and Mortality Weekly Report. Agam K. Rao, MD; Deborah Briggs, PhD et al. Use of a Modified Preexposure Prophylaxis Vaccination Schedule to Prevent Human Rabies: Recommendations of the Advisory Committee on Immunization Practices — United States, 2022.
6. World Health Organization. Weekly epidemiological record. Rabies vaccines: WHO Position Paper 2018 – April 2018. Disponible en: <http://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/272371/WER9316.pdf?ua=1>